

# **HAPPINESS MACHINE**

**"ARYA"**

**PROSA, A KATEGORIA**

## I

### DENA BELTZA DENEAN

*"Perfektua izaten saiatu nintzen, baina ez zuen merezi izan, konturatu bainintzen horrek ez ninduela erreala egiten" – Sum 41*

Erabaki orok du bere ondorioa, ona edo txarra. Inoiz ezin dugu jakin zer gertatuko den, eta are gutxiago, horrek etorkizunean zer ekar diezagukeen. Hain da kontzeptu abstraktua. Nahiago dut oraina bizi, hori baita, hain zuzen ere, nor izango garen erabakiko duena. Bizitzak aukera bakarra ematen digu, eta gure lana da hura ongi aprobetxatzea. Tira, baina ez da dirudiena bezain erraza, bestela, ez lirateke horrenbeste gatazka egongo.

Bizitzan bide ezberdinak har daitezke: motza edo luzea. Horrek ez du esan nahi motza errazena denik; eta luzea, aldiz, zailena. Hala eta guztiz ere, arinagoa izango delakoan, jende gehienak lehenengoa aukeratzen du. Nik ere hori egin nuen, zalantza handirik gabe, gainera. Diru arazoak tarteko, bide errazetik jo nuen, bide okerretik. Orain, ondorioak iritsi direnez, konturatu naiz nire akatsez. Jada ezin ditut konpondu, baina saiatuko naiz berriz horrelakorik ez errepikatzen.

Esan bezala, tranpa egiten saiatu nintzen, baina ez zitzaidan ongi atera. Arazoei aurre egiteko aukerarik onena zezenari adarretatik heltzea zela jakin arren, alde batera utzi eta ez nien kasurik egin, beste egunen batean konponduko nituela ihardetsiz. Hogeitaz urteko mutil gazte estatubatuarra nintzen armadan izena eman nuenean. Banekien gerrara joan beharko nuela egunen batean, baina ordurako urteak pasatuko ziren.

Ondo ordaintzen zuten. Bueno, ez aberasteko bezainbeste, baina inongo gasturik ez nuenez, dirua aurreztu nuen, egunen batean lasai bizi ahal izateko. Zahartzaroan itsasertzeko etxetxo batean bizitzea nuen amets; egunero, jaikitzean, olatuen joan-etorriak behatzea osteratxo bat eginez. Agian ez da asko, baina nahikoa zen niretzat.

Egoera erabat aldatu zen Libiako gerrara bidali nindutenean. Goizetik gauerako erabakia izan zen, erabateko ezustea. Banuen gatazkaren berri, nork ez! Baina lasai bizitzen ohituta, zaila egin zitzaidan errutinatik ateratzea.

Horra iritsi bezain laster, pentsatu nuen arazoa ez zela horrenbesterakoa. Egunak pasa ahala, ordea, konturatu nintzen benetan gertatzen ari zenaz. Komunikabideek ziotena bezain txarra edo okerragoa zen egoera.

Tiro hotsa entzuten nuen bakoitzean, oilo-ipurdia jartzen zitzaidan, bala bat nire erraietan barrena ibiliko balitz bezala. Ez zitzaidan gustatzen egiten nuena; haatik, ez nuen beste irtenbiderik. Hori uste nuen, behintzat.

Orain konturatzen naiz egin nezakeenaz, beranduegi, ordea. Gerra hotza da eta gorritz tindatua egon arren, dena beltz ikusten da, ilun. Taldekideak ondoan izan arren, urrun sentitzen nituen, hamar metroko pareta lodi batek bananduko bagintu lez.

Bizitzaren zentzua ere aldatu egin zitzaidan. Oso erraza da norbait hiltzea; ez, ordea, haren aurpegia ahaztea. Pertsona bati tiro egiten diozunean, bere arimaren zati bat itsasten omen zaizu. Azkenean, dena beltza denean, jasan ezin dezakezun zama hartzen duzu.

## II

### **HARRAPARIA HARRAPAKIN BIHURTU DA**

*"Pertsona itotzen duena ez da ibaira erori izana, bertan hondoratuta mantentzea baizik."*- Paulo Coelho

Inoiz ez zait harrapaketan jolastea gustatu. Beti galtzeaz gain, ez zitzaidan gustatzen norbait harrapatu beharra, banekielako ni ere harrapatuko nindutela. Gaztetan, "Korrika egitea beldurtientzat da!" esanez, alde egiten nuen herriko parketik; gero, hurrengo egunean, berriro bueltatzeko. Garai ederrak ziren, bai, horiek! Orain, ordea, txikitako beldur horiek ni bezain handi hazi dira.

Libiako egoera txarra zen, jakina. Jendea gosez hiltzen zen, eta bizirik zeuden gutxi horiek ere hala amaitzen zuten. Zutik mantentzea lortzen banuen ere, gerra zikin horretatik salbu ateratzeko esperantza galdua nuen, arrotz sentitzen nuelako neure burua. Norbaiten eskuen mende mugitzen den panpina nirudien.

Haurtzaroko joko askorekin konpara daiteke gerra: aulki jokoarekin, egunetik egunera norbait falta delako; ezkutaketarekin, desagertzen diren taldekideengatik... Baina nik harrapaketa jolasaren bidez definituko nuke. Momentuz gu ginen harrapariak, baina nork jakin noiz arte. Etengabeko katean sartuta geunden, edozein unetan zurrumbiloaren barnera erortzeko arriskua genuen.

Egunetik egunera, gero eta gertuago ikusten nuen amildegia. Lasterka jarraitzera behartzen ninduen buruak, bihotzak gelditzeko eskatzen zidan arren. Nekatuta nengoen, ez zitzaidan egiten nuena gustatzen eta gelditu egin nahi nuen.

Dena oso azkar gertatu zen. Goizean, patruilatzaera atera nintzen Deryck eta Tomekin. Lasai zeuden kaleak. Isiltasuna zen jaun eta jabe. Bat-batean, tiro egitera zihoakidan gizon bat agertu zen errepidean. Ez nuen ezer egiteko astirik izan, lurrera erori nintzen konortea galdurik.

### **III**

#### **BIDE BERRI BAT**

*"Inoiz ez ahaztu nor zaren, ziurrenik besteek ez dute egingo eta. Bihur ezazu zure adore, horrela, ez baita inoiz zure ahulezia izango. Arma zaitez harekin eta inoiz ezingo dute zure aurka erabili."*- George R.R. Martin

Ohe batean etzanda igaro nuen denbora hartan guztian buruari bueltak eta bueltak ematea besterik ez nuen lortu. Bi aste pasa ziren arren, sukar altua nuen artean, eta etengabeko odol jarioa zeridan izterretik. Zortea nire alde

jarri zen tiroa eman zidaten egunean. Bihotzera zuzendua egon arren, huts egin eta izterrean eman zidan.

Beti pentsatu izan nuen, eta dut, ekintza orok ondorio bat duen bezalaxe, gutako bakoitzak betebeharrak bat duela bizitza honetan. Badirudi nirea bete gabe nuela eta oraindik bizirik nahi ninduela norbaitek.

Gogoratzen hasieran aipatutako bideez? Bada, nire bidezidorra amaierara iritsi zen, eta zerbait egiteko garaia iritsi zitzaidan. Ohean etzanda igaro nuen denbora guztian nolako bizitza nahi nuen pentsatzen aritu nintzen. Ez nuen gerran jarraitu nahi, ezta armadaren parte izan ere. Inoiz ez zitzaidan erabat gustatu; izan ere, arazoei aurre egiteko bide hori ez zait bidezkoa iruditzen.

Azken urteetan sentitu ez nuena sentitzen nuen: ausardia. Askoren ustez, arma batekin borroka eginez lortzen da. Nire iritziz, ordea, bizitza honetan izan nahi duzuna eskuratzeko ekintzen bidez erdiesten da. Hazi egin nahi nuen, behingoz hazteko gogoia nuen.

Erabakia hartu nuen: neure kasa zutik jartzea lortzen nuenean, mundu ilun horretatik ihes egingo nuen. Urte mutu horiek atzean utzi eta berriz ere barre egin nahi nuen. Ziurtasun ezak ahaztu eta bihotzari kasu egiteko ordua iritsi zen.

*Hanks komandante agurgarria,*

*Ez dakidanez berri hau nola eman, itzulitxururik gabe azalduko dizut. Gudarostean izena eman nuenean, helburu bakarra nuen: ingurukoaren begirunea berreskuratzea. Haurtzaroko lagunak urrun nituen, denak karrera potoloren baten gerizpean lasai-lasai. Nerabezaro zail baten ostean, neure buruan besterik ez nuen pentsatzen. Orain, ordea, ez dut uste egokia denik egiten ari naizena. Esan nahi dudana ez da armadaren parte izatea gaizki dagoenik, ezta gutxiago ere, neure burua ez dudala haren*

*taldekide ikusten baizik. Denbora gehiegi daramat egia ezkututzen, eta hori ez zait bidezkoa iruditzen, ez zuretzat ezta niretzat ere. Zaila izango dela badakidan arren, orain arteko laguntasuna mantentzea gustatuko litzaidake. Asko eskertzen dizut urte hauetan guztietan gidatu izana, baina agur esateko garaia heldu zait.*

#### **IV**

#### **HAPPINESS MACHINE**

*"Ekintza on batek ez du txarra garbitzen, ezta txar batek ona ere. Bakoitzak merezi duen ondorioa izan behar luke"- George R.R. Martin*

Akats asko egin ditut bizitzan zehar, gehiegi, agian. Baina inor ezin da horiengatik epaitua izan, ezta egindako ekintza onengatik ere. Ziur nago balantza batean jarriko bagenitu, ekintza txarrek irabaziko luketela, baina zer? Ez gara perfektuak eta, aldatzen saiatuagatik ere, ez gara izango. Gainera, akatsek egiten gaituztela eder deritzot.

Afrikara misiolari joan nintzeneko helburua ez zen nire hobenak ezabatzea, horrenbeste denboran bihotzak agindutakoa egitea baizik; armadan urteak igaro ondoren konturatu bainintzen hori ez zela egin nahi nuena. Bai, diru dezente irabazten nuen, baina zertarako behar nuen?

Urteen poderioz konturatu naiz jaso nahi dudana ordainsaria zein den: heldu, haur, neska edo mutilek, zentimo bat bera ez badute ere, nirekin konpartitzen duten guztia. Munduko diru guztiak ere eros ezin dezakeen saria da niretzat euren jatortasun eta eskerrona.

Afrikako biztanleek guk dugunaren laurdenik ere ez dute; hala ere, pozik daude. Bai, gogorra da batzuetan egoera zail horretan bizitzea, baina trukean jasotzen duzunak ez dauka parekorik: haurren irribarrea baloi bat oparitzen diezunean, gurasoen poza haurrak sendatzean... Zoriontasuna

banatzen dudala dirudi, eta harrapaketan bezala, zorionak ni ere harrapatzen nau.

Hauxe da benetan egin eta izan nahi dudana, hauxe da benetako Brandon Butler.